

Topalekua

65zk. 2011ko apirila

abril 2011 - n.º 65

orr. 1 eta 4: *EHUko Gizarte-Kontseiluaren oso bilkurak doktoregoan beste 10 irakaskuntza ezartzea proposatu dio hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailari*

orr. 2, 3 eta 4: *25. Urteurrenean, unibertsitate publikoetako gizarte kontseiluek euren zeregina aztertu dute*

Kontseiluak laster abiaraziko ditu Unibertsitatea eta Gizarte Topaketak, eztabaidarako eta berrikuntzarako foro bat

EHUKO GIZARTE-KONTSEILUAREN OSO BILKURAK DOKTOREGOAN BESTE 10 IRAKASKUNTZA EZARTZEA PROPOSATU DIO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILARI

EHUko Gizarte Kontseilua osoko bilkuran bildu zen martxoaren 30ean, Bilbon. Bilera horretan erabaki zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailari haxe proposatzea: Euskal Herriko Unibertsitatean beste 10 doktorego-irakaskuntza ezartzea. Horregatik, 2010-2011 ikasturtean 71 doktorego-ikastaro eskainiko dira; horietatik erdiei, gutxi gorabehera, kalitate-aipamena eman die Zientzia eta Teknologia Ministerioak.

Irakaskuntza horiek Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren oniritzia jaso dute, baita Uniqua-
len onespina ere. Hainbat arlo jorratzen dituzte: Zientzia eta Teknologia Kuantikoak, Ikerketa
Biomedikoa, Osasun Publikoa; Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia; Arkitektura, Hiri-
gintza eta Ondarea; Nazionalismoa XXI. mendean; Politika eta Administrazio Zientzia; Tekno-
logia, Ikasketa eta Heziketa; Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak; eta Zientzia Kognitiboa
eta Giza Zientziak.

25. URTEURRENEAN, UNIBERTSITATE PUBLIKOETAKO GIZARTE KONTSEILUEK EUREN ZEREGINA AZTERTU DUTE

Valladolideko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean izan dira Unibertsitate Publikoetako Gizarte Kontseiluen Konferentzia Jardunaldiak, apirilaren 7tik 8ra bitartean. “Gizarte Kontseiluak, 25 urte geroago” lelopean aztertutako organo horien zeregina, alegia, unibertsitatea eta gizartea lotzea.



Espainiako unibertsitate publikoen berrogeita hamar ordezkari baino gehiago bildu ziren Gizarte Kontseiluen sorreraren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldian. Gizarte Kontseiluak organoak dira gizartearen parte-hartzea unibertsitateetan bideratzeko. Haien sorrera oso gertaera garrantzitsua izan zen; izan ere, horri esker eraldatu ziren goi-mailako hezkuntza-erakundeen eta zerbitzatzen duten komunitatearen arteko harremanak.

Jardunaldiak foroak izan ziren, honako gai hauek eztabaidatzeko: batetik, kontseiluen zeregina eta, bestetik, zein eginkizun izan beharko luketen etorkizuneko unibertsitatean. Hainbat hitzaldik bide eman zuten ikuspegiak partekatzeko: “Gizarte Kontseiluen iragana, oraina eta geroa” (*Pasado, presente y futuro de los Consejos Sociales*), “Zer espero duen Unibertsitateak Gizarte Kontseiluengandik” (*Lo que espera la Universidad de los Consejos Sociales*), “Zer espero duen Gizarteak Gizarte Kontseiluengandik” (*Lo que espera la Sociedad de los Consejos Sociales*), “Bat ez etortzea eta hitza ematea: unibertsitateak gobernatzeko gaur egungo joerak” (*El descontento y la promesa: tendencias actuales en el gobierno de las Universidades*) eta “Erreforma baterako oharra” (*Apuntes para una reforma*).

Politikan eta unibertsitate-kudeaketan entzute handia duten adituek eman zituzten hitzaldiak. Honako hizlari hauek nabarmendu ziren, besteak beste: Marius Rubialta, Unibertsitateetako Idazkari Nagusia; Federico Gutiérrez-Solana, Espainiako Unibertsitate Publikoetako Errektoreen Konferentziako burua; Francesc Solé

Parellada, CYD Fundazioko presidenteordea; Javier Gómez-Navarro, Merkataritza Ganberen Kontseilu Gorenaren burua; eta José Mateos, Gaztela eta Leongo Juntako hezkuntza-sailburua.

Valladolideko Unibertsitatea anfitrioi izanik, Marcos Sacristánek, Unibertsitateko errektoreak, inauguratu zuen ekitaldia. Honako hauek egon ziren berarekin: Gaztela eta Leongo Juntako hezkuntza-sailburua; Joaquín Moya-Angeler, Gizarte Kontseiluen Konferentziako burua; Lucio Gabriel de la Cruz, Valladolideko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko burua; eta Javier León de la Riva, Valladolideko alkatea.

Gabriel de la Cruzek esan zuen legeak hobetu behar direla, kontseiluen eta gizartearen arteko topaketak laguntzeko. Horrez gain, de la Cruzek azpimarratu zuen Espainiako Unibertsitate Publikoetako Gizarte Kontseiluek definizio egokiagoa behar dutela. Hizlariak adierazi zuen definizio zehatzik eza izan dela Gizarte Kontseiluen mugarik handiena 25 urteotan. Izan ere, Gizarte Kontseiluek proposatu eta gainbegiratu egin ahal dute, baina “ez daukate baliabiderik bermatzeko erabakiak beteko direla”.

Urte hauetan lortu da unibertsitatea ingurunera gehiago irekitzea; hala ere, kontuan hartzen bada Europako Goi Mailako Hezkuntzako Esparrura egokitzeke unea dela, eta eginkizuna aldatzen ari dela, orduan, horrekin ez da nahikoa. Hauxe da erronka: “Gizarte —eta ekonomia— garapenerako eragile nagusia izatea”.

ERREFORMA BATERAKO OHARRAK

Jardunaldietako eztabaida garrantzitsuenetako bat *Apuntes para una reforma* zeritzon mahai-inguruan antolatu zen. Moderatzailea Francesc Solé CYD Fundazioko presidenteordea izan zen, eta honako hauek izan ziren parte-hartzaileak, besteak beste: Joaquín Moya-Angeler, Gizarte Kontseiluen Konferentziako burua; Federico Gutiérrez, Espainiako Unibertsitate Publiko-etako Errektoreen Konferentziako burua; eta Marius Rubiralta, Unibertsitateetako Idazkari Nagusia.

Parte-hartzaile gehienek berretsi zuten “gizarte-kontseiluen erreforma beharrezkoa” dela. Hala ere, Juan Jose Mateos Gaztela eta Leongo Juntako hezkuntza-sailburua harantzago joan zen. Mateosek eskatu zuen Gizarte Kontseiluak unibertsitateko gobernu-organoak izateko, “unibertsitatea gobernatzeko konpromiso are handiagoa izateko”, eta “profesionalagoak, betearazleagoak izateko”. Gizarteak erantzukizun berriak eskatzen dizkie unibertsitateei; beraz, horrela, Gizarte Kontseiluek aurre egin liezaiekete erantzukizun horiei.

Mahai-inguruan, Rubiraltak azaldu zuen Hezkuntza Ministerioa lanean ari dela adostasuna lortzeko Gizarte Kontseiluen erreformaren gaian. Horrez gain, Rubiraltak zehaztu zuen erreforma Unibertsitate Sistema Modernizatzeko Estrategiaren barne dagoela. Estrategia horrek 2015. urtera arteko epea du, eta Europako agendaren ardatzak hartu ditu oinarri.

“Ardatz horietako bat gobernantza da: gobernantza modernizatzea ezinbestekoa da unibertsitate-sistema osoan, eta unibertsitate-sistema ezinbestekoa da herrialdean”. Rubiraltaren ustez, lehenik, unibertsitate-eredua zehaztu behar zen, eta ondoren, gobernantza-mota erabaki; horregatik, gobernantzaren gaia

azkenerako utzi dute. Unibertsitateetako idazkari nagusiak “agerikotzat” jo zuen modernizatzeko prozesuak legealdi osoa iraungo duela; eta elementu arauemaile batzuk aldatu behar izanez gero, legealdiaren ostean egin beharko dela. Baina horrekin batera adierazi zuen “modernizatzeko prozesua aurrera doala, egiturari buruzko adostasun erabatekoa lortze aldera”.

Presidente batzuk gobernantzaren modernizazioari buruz eszeptiko agertu zirelako, idazkari nagusiak adierazi zuen oinarriak ezarrita daudela. Idazkari nagusiak gogoratu ziren aurretik ere zalantzan jarri zela unibertsitateak gai izango ote ziren finantziazio-sistemaren kostua aztertzeko eredu bat abian jartzeko; eta eredu hori, hain zuzen ere, aho batez onartu dela duela gutxi. Bukatzeko, hauxe esan zuen: “Erabateko sintonia eta adostasun orokorra lortu ditugu”. Horregatik, haren ustez ez dago zalantzarik, kontseiluen erreformaren gaian ere adostasuna lortuko da.

UNIBERTSITATEEN ETA MERKATARITZA GANBEREN ARTEKO HITZARMENA

Valladoliden antolatutako Jardunaldi hauek testuinguru aukeratua izan ziren hitzarmen bat sinatzeko, zehatz-mehatz, Espainiako Unibertsitate Publiko-etako Errektoreen Konferentziaren eta Merkataritza Ganberen Kontseilu Gorenaren arteko hitzarmena. Hitzarmen horrek honako hauek ditu helburu: “gazte tituludunen lanerako sarbidea sustatzea; eta hortaz, enpresen lehiaketa-maila igotzea”. Hori lortzeko, hamar ekintza-ardatz daude hitzarmenean. Behatoki



Honako hau da EHUko Gizarte Kontseiluak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailari ezartzea proposatu zion

doktorego-irakaskuntzen zerrenda:

(1. orritik dator)

ADARRA	ORDENA ZB.	DOKTORETZA-IKASKETAK
ZIENTZIAK	1	ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA KUANTIKOAK
OSASUN ZIENTZIAK	2	IKERKETA BIOMEDIKUA
	3	HERRI OSASUNA
	4	IMMUNOLOGIA, MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIA
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	5	ARKITEKTURA, URBANISMOA ETA ONDAREA
GIZARTE ZIENTZIAK ETA JURIDIKOAK	6	NAZIONALISMOA XXI. MENDEAN
	7	ZIENTZIA POLITIKOA ETA ADMINISTRAZIOKOA
	8	TEKNOLOGIA, IKASKETA ETA HEZKUNTZA
ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK	9	JARDUERA FISIKOKO ETA KIROLEKO ZIENTZIAK
	10	EZAGUTZA-ZIENTZIA ETA GIZA ZIENTZIAK: HIZKUNTZA, KOMUNIKAZIOA ETA ANTOLAKETA

Unibertsitatea eta Gizartea Topaketak

Horrez gain, Kontseiluak Unibertsitatea eta Gizartea Topaketak abian jartzea onetsi du. Topaketak eztabaidarako eta berrikuntzarako foroak izango dira, eta honako hauek dituzte xede: Euskal Herriko Unibertsitatearen eskura jartzea beste komunikazio-tresna bat; gizarteari erraztea Unibertsitateak susta-

tutako lan eta ikerketa-proiektuetarako sarbidea; eta gune bat izatea, unibertsitatea eta eragile ekonomiko zein sozialak elkartzeko. 2011. urtean, Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoaren barruan, Foroa garatzea aurreikusi da: hiru hilean behin bilduko da, eta egitura malgua izango du, landutako gaien ezaugarrietara egoki dadin.

(3. orritik dator)

bat eratuko da, eta ardatz horien oinarriak behatokian lortutako emaitzak izango dira. Behatokiak enpresen benetako beharrei buruzko informazioa emateaz gain, ikasketak enpresen beharretara egokitzeko baldintzak zeintzuk diren ere jakinaraziko du. Honako hauek izan ziren aipatutako ildo batzuk: nazioartekotzea indartzea, giza baliabideen etengabeko prestakuntzaren alde egitea, praktikak sustatzea unibertsitateko graduetan, eta ezagutzaren eskualdaketa bultzatzea.

Javier Gómez Navarrok, Merkataritza Ganberen Kontseilu Goreneko buruak, zehaztu zuen hitzarmen hori “estrategikoa eta guztiz egokia” dela, funtsezkoa baita produkzio-sistema eta hezkuntza-sistema bat etortzea, eta biak elkarlanean aritzea. “Unibertsitateak izaera ekintzailea sustatu behar du, bai eta balio, jokabide eta gaitasun batzuk indartu ere”. Gaitasun horien artean, talde-liderra izateko gaitasuna eta kudeatzeko trebetasuna nabarmendu zituen.

Federico Gutiérrez-Solanak, Errektoreen Konferentziako burua den aldetik, hitzarmena sinatu zuen.

Gutiérrez-Solanak defendatu zuen unibertsitateen eta enpresen arteko elkartrukea. Horretarako, haxe dela beharrezkoa adierazi zuen: “doktorego-programen eta enpresen arteko koordinazioa hobetzea, eta irakasleen eta sektore pribatuko profesionalen arteko *mugikortasuna* erraztea”. Espainian hazkunderedu iraunkorra sustatuko bada, Unibertsitateen eta enpresen arteko konfiantza sendotu beharra dagoela azpimarratu zuen, eta haxe gehitu: “Bide horretan, sinatu dugun hitzarmena oso garrantzitsua da”.

Era berean, Joaquín Moya-Angeler Gizarte Kontseiluen buruak nabarmendu nahi izan zuen hitzarmenaren garrantzia. Haren aburuz, “hitzarmenak banaka garatu beharko dira, alegia, unibertsitate bakoitzak zehaztu beharko du merkataritzako gaberak egokiarekin, hitzarmena bideragarria izan dadin, eta egoera bakoitzari erantzun diezaion”. Horrekin batera adierazi zuen mota horretako erabaki gehiago hartu behar direla, “unibertsitateak eta enpresek elkarri ulertzea ezinbestekoa baita alderdi bientzat”.